

## Gogoz kontrako gotzaina

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-09-12: 2.

Ardien gogoz kontrako artzaia ez da bakarrik posible, ezinbestekoa da, zeren eta artaldeak ez du aukerabidearen zentzurik. Baina gizartean, baita Elizan ere, pertsona kontzienteak nahi dituztenez gero, ezinbestekoa da eliztarrek beren buru izango dena gogo onez hartzeko lain askatasun izatea. hau da, nik uste, Bizkairako gotzain berria hautatzeko egoera honetan kontuan hartu behar den gutxienezkoa. Batez ere gaurkoan alderantzizkoa gertatzen ari denean, herriak nahi ezean, antza, Vatikanoko Estatu aukera ofiziala isilpe nabariko sisteman inposatzen ari zaionean. Aitzekiaz aipatutako "politika" ez da aukera minimo honen grazia eskatzea, hau oztopatzen duenaren aginte itsua baino. Nork eta zein zentzutan inposatu zaio memorian Elizako bidea oraindik gertuak ditugun aldietan Euskal Herriari? Nondik etorri da orain arte politika? Bestalde, azken honetan aukeratuak gotzain euskaldunak izan diren honetan, ez da herriaren kexarik izan. Euskaldun izatea kaltegarri al da oraindik?, eta herri honetatik kanpoko izatea kriterio garbiarentzat onuragarri? Hau norentzat eta zergatik? Fedegabeko batzuen moduan arima pisatzen jarri garela dirudi, eta ez da hala, alderantziz baizik; zera probatu nahi digute, euskaldun izatearen aje originala. Eta hau, ohi bezala, Estatutik bidalia izan den prestigio eskaseko diplomaziaren bitartez. Eliza barruan sentitzen garenok, kristau kontzientziatuok, ezin dugu inposaketa politiko hau besterik gabe onartu; kanpoan geratzen joan diren euskalduneri, axola gutxi. Herriari ez dio onik egingo, eta Elizari ere ez.